



Egun on, Yadira Ledezma García naiz, 13 urte ditut eta Cochabamban bizi naiz (Bolivia). DBHko 2. maila ikasten dut San Rafael B ikastetxean.

Eskolak martxoaren 12an eten ziren. Aste batzuetan jarduerarik gabe egon ondoren, urrutiko eskolak ezarri ziren Internet bidez (WhatsApp, Classroom, Meet edo Zoom) eta horretarako, ikasle gehienek ahalegin handia egin behar izan zuten, megak erosi behar baitituzte Internetera konektatzeko.

Abuztuaren hasieran gobernuak 2020 ikasturteari amaiera eman zion eta automatikoki hurrengo ikasturtea hasi zen. Irakasleek eta familiek hala adostuta, urrutiko eskolak estraofizialki ematen jarraitzen dute. Ikasturtearen amaiera ofizialaren ondoren, ikasle askok eskola utzi dute.

Cochabambako ikastetxeetan, irailean, ikasleen % 65 urrutitik ikasten jarraitzen du.

Berrogeialdia oso zorrotza izan arren, kasuak areagotzen joan ziren eta uztailean eta abuztuan maximora iritsi ziren. Irailaren amaierarako, datu ofizialen arabera, 140.000 kasu eta ia 8.000 hildako egon dira (iturri fidagarriek hildakoen kopurua hiruz biderkatzen dute). Hala ere, oso test gutxi egin dira eta, ondorioz, zifra hauek sinesgarritasun gutxi dute. Baina egia da ospitaleak gainezka egon direla hilabete hauetan. 2020ko irailean jarduera ekonomiko gehienak berriz hasi dira, baina ez, ordea, bilera sozialak, kulturalak edo pastoralak.

Haur eta gazte askorentzat zaila izaten ari da etxetik ezin irtetea, bereziki Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umeentzat; izan ere, 6 hilabete daramatzate itxialdian, lagunak ikusi ezinik, jolastu ezinik eta haurren berezko jarduerak egin ezinik...

Niretzat gogorra izan zen egiten nituen jarduerak egiteari uztea eta egoera berrira, eskola birtualetara eta abarretara moldatzea. Baina familiarekin egoteko eta liburuak irakurtzeko aprobetxatu dut.

Pandemia honetatik ikas ditzakegun gauza batzuk: pazientzia izaten, pertsona guztiekin bizitzen, Jainkoarengan fedea izaten eta elkarri laguntzen.

Agur.

Eraldatzen
hasteko prest